SARAUBE BERRIAK

Aiarako Udalaren aldizkaria #110
2021eko MARTXOA / MARZO

Martxoaren 12an izango da Aiarako emakumeei buruzko liburuaren aurrerapena

2020ko martxoan, Aiarako emakumeei buruzko liburua egiteko prozesua hasi zen, bilera parte hartzailea deituta. Bertan adostu ziren proiektuaren nondik norakoak eta elkarrizketa ugari egin ditu geroztik Inma Roiz idazle eta ikertzaileak, Novelame taldeko kidea.

Hala, Aiarako emakumeen memoria, aztarnak eta errealitateak jasotzen dituen liburua idatzi da. Horretarako, 35 emakumek hartu dute parte zuzenean, beraien bizipenak eta iritziak emanda, denen artean, Aiarako historia osatzeko, emakumezkoen ekarpenak ere jasotzeko, bistaratzeko eta aitortzeko. Hasiera batean, asmoa zen liburua aurtengo martxoan aurkeztea, baina osasun egoera dela eta, ekainera arte atzeratzea erabaki da, liburua jai giroan gizarteratu nahi delako. Izan ere, partaide eta herritar guztiekin aurkeztu eta ospatu nahi da testua, Aiarako historiaren zatia eta mugarri izango delako, eta merezi duen garrantzia eman behar zaiolako.

Beraz, ekainean, liburua aurkezteko eguna heldu bitartean, aurrerapena egingo da martxoaren 12an, ostiralean, 18:00etan Aiarako Udalaren Youtube kanalean. Horri esker, streaming bidez emititukо da, denok ikusi ahal izateko liburua eta, aurrerapen bezala, egin den bideoa. Horregatik guztiagatik, tokiko erakundeak animatu nahi du herritar oro, egun horretan tartea egin dezan bere agendan, konektatu eta liburuaren berri izateko zuzenean.

El 12 de marzo, aún dentro del contexto del Día Internacional de la Mujer, se llevará a cabo un adelanto del libro sobre las mujeres de Ayala. Debido a la situación sanitaria, el acto tendrá lugar a través del canal de Youtube del Ayuntamiento y la emisión comenzará a las 18:00. El vídeo que se podrá ver será solo un anticipo de la auténtica presentación, que se prevé para junio, cuando la pandemia provocada por la Covid-19 haya remitido y se pueda celebrar apropiadamente la culminación de este proyecto, otorgándole la debida importancia a esta aportación y en compañía de todas sus participantes y autora.

El Ayuntamiento de Ayala se dispone a renovar su Plan de Accesibilidad

El Ayuntamiento de Ayala va a dar el primer paso para actualizar su Plan de Accesibilidad, cuya última revisión data del año 2007. El proyecto ha sido adjudicado por 11.495 euros e incluirá a las 23 Juntas Administrativas. El objetivo principal será conocer la situación actual del mobiliario, edificios y centros públicos del municipio, de modo que se puedan utilizar de la forma más autónoma y libre posible por todas las personas, facilitando su integración social y el ejercicio de sus derechos.

Aiarako Udalak 11.495 euroren truke esleitu du Irisgarritasun Plana eguneratzeko proiektua, 2007an egin baitziren azken aldaketak. 23 Administrazio Batzarrei eragingo die egitasmo berriak eta eraikin zein espazio publikoetan dauden oztopoak identifikatuko dira.

Proyecto piloto sobre la generación de excedentes alimentarios en el hogar

La Cuadrilla de Ayala invita a 25 familias a participar en una experiencia piloto y pionera en Euskadi, cuya finalidad es conocer la gestión de alimentos y la posible generación de excedentes en los hogares y otros ámbitos, tanto de Ayala como del resto de municipios de la comarca. Quienes quieran involucrarse y contribuir en este proyecto, deberán contactar con la Cuadrilla antes del 14 de marzo, enviando un correo electrónico a la dirección cayala.encina@ayto.araba.eus. Además, las familias que finalmente formen parte de esta experiencia recibirán una cesta de productos de la zona.

Esta iniciativa es acorde al compromiso global de reducción a la mitad del desperdicio alimentario a lo largo de toda la cadena agroalimentaria para el año 2030, que las Naciones Unidas calcula en 1.300 millones de toneladas anuales. El acuerdo ha sido posible gracias a los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS), particularmente, el objetivo 12.3, que ha sido adoptado como propio por la Unión Europea a través del Pacto Verde Europeo y de la Estrategia "De la Granja a la Mesa".

Aiarako Kuadrillak gonbidatuko ditu eskualdeko 25 familia, parte har dezaten esperientzia aitzindarian Euskadin. Horren xedea da ezagutzea elikagaien kudeaketa eta balizko hondakinen sorrera, bai etxebizitzetan zein beste esparruetan, ez bakarrik Aiaran, baita kuadrillako gainerako udalerrietan ere. Proiektuan parte hartu eta ekarpena egin nahi dutenak harremanetan jarri beharko dira kuadrillarekin martxoaren 14an baino lehen izena emateko. Horretarako, mezua bidaltzeko beharra dago cayala.encina@ayto.araba.eus helbidera. Berez, ekimenera batzen diren familiek jasoko dute eskualdeko produktuen saskia. Egitasmoa lotuta dago elikagaien xahuketa erdira murrizteko munduko konpromisoarekin, 2030ean lortu nahi dena. Zehazki, 12.3. Garapen Jasangarrirako Helburuari esker izan da posible hori, Europar Batasunak hartu baitu bere gain Akordio Berdearen barruan.

Puntu Berdea Aiarako herrietan

Martxoan Aiarako Puntu Berde Mugikorra helduko da ia Administrazio Batzar guztietara. Kamioia, berez, egongo da ohiko tokietan. Herritarrek gogoratu behar dute zerbitzu horren eginkizuna ez dela traste handiak jasotzea, baizik eta bestelako hondakinak: tamaina txiki eta ertaineko objektu berrerabilgarriak -bigarren bizitza izan dezaten-, aerosolak, olioa, cd-ak, dvd-ak, neumatikoak, erradiografiak, jostailuak, etxeko hondakin elektrikoak, pinturak, arropa...

Bestalde, luiaondoarrek aintzat hartu behar dute euren herrian bilketa hori hileko hirugarren astelehenean egiten dela, 11:00etatik 13:00ak bitartean.

Este mes de marzo llegará la primera recogida de 2021 del Punto Verde Móvil a la mayoría de las Juntas Administrativas de Ayala. El camión se estacionará en el lugar habitual. En Luiaondo se realiza todos los terceros lunes de cada mes de 11:00 a 13:00. Queda fuera de este servicio la retirada de enseres y voluminosos.

“Laburbira” euskarazko zinemaren ekimenak Aiara bisitatuko du

XVIII. edizioa beteko du 2021ean Laburbirak. Kultura eta, ikus-entzunezkoentzat egoera berezi honetan, xede irmo hauekin jarraitzen du aurrera egitasmoak: zuzendarien lanak ezagutaraztea, euskaraz ekoizten jarrai dezaten, eta ikusleei sortutako zinemaz gozaraztea. Apirilaren 26tik maiatzaren 30era bitartean, aukeratutako film laburrek herriz herri zeharkatuko dituzte Euskal Herriko zein kanpoko hainbat toki. Aurrerago zehaztuko da Aiarari dagokion emanaldia. Hori bai, aurten hautatutako 8 filma laburrak honako hauek izango dira: “Aterpean ateri”, “Nigandik”, “Game over”, “Ilunabarrean esan”, “Babarrun txapelketa”, “Datsegit”, “Nire eguneroko maitea” eta, azkenik, “Agur”.

El festival de cortometrajes en euskara Laburbira alcanzará en 2021 su XVIII edición. En estos momentos adversos para la cultura y para la producción audiovisual, insiste en sus objetivos: reconocer el trabajo de los y las cineastas para que sigan produciendo en euskara y hacer disfrutar al público con el cine. Desde el 26 de abril al 30 de mayo, los cortometrajes seleccionados recorrerán Euskal Herria de pueblo en pueblo. Próximamente se concretará la proyección que tendrá lugar en Ayala. Los 8 trabajos elegidos son “Aterpean ateri”, “Nigandik”, “Game over”, “Ilunabarrean esan”, “Babarrun Txapelketa”, “Datsegit”, “Nire eguneroko maitea” y “Agur”.

“Skratx” superheroia, Igande Arratsaldeak Familiaren eskutik

Martxoaren 28an izango da Igande Arratsaldeak Familian egitasmoaren hurrengo hitzordua. Oraingo honetan, “Skratx” bilakatuko da eskaintza nagusia, umeentzako zein helduentzako antzezpen umoretsua. Ameztu taldearen lanak kontatzen du superheroi baten abentura berria. Oso argia ez denez, publikoaren laguntza beharko du bahitutako bere kidea askatzeko. Arespalditzan izango da 17:00etan, kalean, eguraldiak laguntzen badu.

Convenio con Amukatu

El Ayuntamiento de Ayala ha acordado establecer un convenio de colaboración durante el ejercicio 2021 con la Asociación Amukatu para impulsar la labor social de control y mejora de las condiciones higiénicas y sanitarias de las colonias felinas del municipio.

El Consistorio apoyará a la entidad con una aportación máxima de 1.000 euros para que esta asuma la captura, esterilización y suelta de felinos, así como el saneamiento, acondicionamiento y provisión de las necesidades básicas para el bienestar de las colonias. Amukatu deberá para ello establecer un plan anual, colaborar con los centros veterinarios de Orduña y Laudio y llevar a cabo acciones de difusión.

Aiarako Udalak hitzarmena sinatu du Amukatu Elkartearekin, taldeak bere gain har dezan katuen kolonien populazioaren kontrola eta euren osasun egoera hobetzea. 2021ean egongo da indarrean eta, gehienez, 1.000 euroko ekarpena egingo du tokiko erakundeak.

Vuelve la Aiara Bira

Después de su suspención en el año 2020 debido a la irrupción de la pandemia, la Aiara Bira arrancará su XXXI edición el 13 de marzo. Este año, la penúltima etapa tendrá lugar el sábado 27 de marzo en Ayala y partirá y finalizará en Respaldiza. Su recorrido de 41 kilómetros comenzará a las 16:00 en la plaza y atravesará, entre otras Juntas Administrativas, Menagarai, Izoria y Murga, para acabar sobre las 17:00 en Respaldiza.

No será el único día que los ciclistas compitan en el municipio, ya que, por ejemplo, el trazado de la última prueba, cuyo origen es Amurrio, también se adentrará en tierra ayalesa. Lo mismo ocurrirá con la de Okondo. Este año la persona homenajeada será el corredor laudioarra Jon Unzaga Bombín, que fue profesional entre los años 1987 y 1996 y participó nada menos que en 4 Tours, 3 Giros y 2 Campeonatos del Mundo.

Libro sobre Juan Antonio Alaña

El escritor Alberto Luengas ha finalizado la redacción de su octavo libro, que ha visto la luz en marzo. Tras abordar distintas temáticas, muchas de ellas ligadas a Ayala, esta nueva obra se centra en la vida de uno de los vecinos del municipio, Juan Antonio Alaña Uribarri, natural de Menagarai. Más conocido por tocar el cuerno en actos públicos y por ser artesano, el ayalés es, en realidad, un consumado viajero que ha recorrido países tan distintos como Egipto, Perú o China. Alberto Luengas ha titulado su última creación "El polifacético Juan Antonio Alaña". El libro está compuesto por 400 páginas y su precio es de 15 euros. Las personas interesadas en adquirirlo podrán hacerlo en kioskos y librerías de Laudio, Amurrio y Artziniega. Igualmente, habrá al menos un punto de venta en Respaldiza donde conseguirlo.

Puntu berdeak

Agiñiga	11:00-12:00	30-mar
Añes	11:00-12:00	26-mar
Beotegi	14:00-15:00	23-mar
Opellora	11:00-12:00	31-mar
Erbi	13:00-14:00	26-mar
Etxegoien	13:00-14:00	07-abr
Izoria	13:00-14:00	08-abr
Lexartzu	12:00-13:00	26-mar
Lanteno	11:00-13:00	08-abr
Luxo	12:00-13:00	29-mar
Madaria	13:00-14:00	29-mar
Maroño	13:00-14:00	30-mar
Menagarai	12:00-14:00	31-mar
Menoio	12:00-13:00	23-mar
Murga	14:00-16:00	31-mar
Olabezar	12:00-13:00	27-mar
Ozeka	11:00-12:00	23-mar
Kexaa	13:00-14:00	23-mar
Arespalditza	10:00-12:00	27-mar
Erretes Lanteno	14:00-15:00	26-mar
Salmanton	12:00-13:00	30-mar
Soxo	13:00-14:00	06-abr
Zuhatza	11:00-13:00	07-abr

Agenda

12
AIARAKO EMAKUMEEN LIBURUA
Aurrerapena
Online bidez, 18:00

28
IGANDE ARRATSALDEAK FAMILIAN
"Skratx" ikuskizuna umeentzat, eskulanak eta askaria eramateko
Arespalditza, 17:00

Whatsapp municipal

Si quieres informarte de la actualidad de Aiara, súmate a las más de 290 personas que ya están apuntadas en el número de WhatsApp 615 788 146.